

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

NARRATIVA EUSKERA 17-18 AÑOS
PRIMER PREMIO

Ezkutuan Oihane García Rípodas

Jatetxe handiaren sabaitik hogei lanpara baino gehixeago zintzilik zeuden arren, bat ere ezin zen alderatu gure mahai gainera isil-isilik erortzen zen armiarma-lanpararekin. Bera eta ni bezalako bi pertsona mahai horretan eserita egoteak zerbait irreal zirudien, lanpara hura apaintzen zuten ehundaka kristaletako bakoitzak argitzen gintuen bitartean. Beno, bera argitzen zuten, kristal xume batzuek ere badakitelako edertasuna apartekotik bereizten, eta horregatik bera argitzen zuten. Alkandoraren lehen botoiak askatuta eta mahukak ukondoan parean bilduta, irribarre handi batek apaintzen ziola begirada ia ziur nengoen. Ez dakit zehatz-mehatz nola, baina beti lortzen zuen irribarre hura gainerako jantziekin konbinatzea. Hala ere, oraingo honetan, lehenengo aldiz ezagutzen dudanetik, lepotik zintzilik gorbata marradun bat zeukan, edonon harrotasunez janzten zituen tiranteak eraman beharrean.

Ezpainak mugitzen ditu, garrasika hitz eginez xuxurlaka entzuten dudana, eta nire zentzumenak, aldiz, jatetxearen beste puntara joaten dira. Han, begi marroiko mutiko beltzaran bat, galtza eta oinetakoekin, ile horiko neskato batekin ezkutaketan jolasean ari da. Ile-xerlo bat bekokitik erortzen zaio, eta gainontzeko ile-zatiek, berriz, bere buruaren atzeko isats handi batean begizta arrosa txiki batekin estututa jarraitzen dute, gerrian daramanarekin konbinatzen duena. Lepotik orkatilaraino, kristalak bezalako soineko txuria zintzilik dauka. Bere lehen jaunartzea, hain ospakizun berezia gaur egun. Unetxo batez begira gelditu naiz. Neskatoa ahoa estaliz zutabe baten atzean ezkututzen da, edozein zarata saihesteko jolasa irabazteko itzaropenarekin, haren soinekoa osatzen duten geruza erraldoiak bere ezkutaleku inprobisatuaren alboetatik agertzen direla jakin gabe. Mutikoa, irribarretsu lagunaren baldarkeriaz ohartzean, zutabera korrika doa, neskak garrasi egiten du, alfer-alferrik ihes egiten saiatzen den bitartean. Honek gerriko begiztari heltzen dionez, atzera eragiten dio, eta biak baldosara erortzen dira algara ugaritan lehertuz. Gizon baten errieta txiki bat

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

jasotzen dute, bietako baten aita dela dirudi. Nire ezpainenatik irri-karkara batek ihes egiten du ere bai.

—Entzuten nauzu? —senarrak galdetzen dit.

Hari zuzenean begiratu gabe erdialdeko irribarre bat eskaintzen diot, entzuten dudan azken gauza bere hasperena da nire zentzumenak bi umeengana berriro hedatu baino lehen. Ezkutaketan jolasten jarraitzen dute, eta oraingoan, nire oroitzapenak haiekin jolasten uzten ditut. Haiengan neure burua ikusten dut, hazi nintzen herri txikian. Herriak bi baserri eta eliza bat besterik ez zituen; gaur egun, bizilagunaren etxea zutik jarraitzen duen bakarra da. Nire sei anai-arreben eta herri osoaren artean txikiena nintzen. Eskola ondoko haranean zegoen, goiz iristeko bi ordu lehenago jaiki behar nuen. Oraindik ere ibilaldi luze haiek nostalgiaz gogoratzen ditut, zeinetan fantasiako eleberri batean bezala, printzesa sentitzen nintzen, aukeratua, biztanle guztiak atsekabetzen zituen herensugearengandik salbatzeaz arduratzen zena. Bide erdian aurkitzen nuen lehen makila munduko ezpatarik zorrotzena bilakatzen zen. Saltoka, barrez eta abestuz mundua babestu ondoren eskolara iristen nintzen, eta idazmahaian eseri bezain fite, errieta jasotzen nuen, berriz ere berandu iristeagatik. Maisuari nire errua ez zela azaldu arren, dragoi basati horrena baizik, ez nintzen inoiz zigorretik libratu.

Nahiz eta beti berdina jan, platerean ez zitzaidan jatekorik falta izan. Hain da horrela, non gurasoek abereetaz arduratzeko morroi bat kontratatzea erabaki baitzuten, behi guztiak lasterka joaten baitziren agertzen ikusten nindutenean. Uste dut, haiek nik bezala, adar soil bat ikusi beharrean, diamantez jositako ezpata zorrotz bat ikusi eta ihes egiten zidatela.

Mutila ni baino hiru urte eskas gehiagoko mutil alaia zen, begi berde handiak eta hautsez betetako arropak zituena. Ostera, bere alkandora higituaren azpian kolore iluneko tiranteak harrotasunez janzten zituen. Bere aurpegi-adierazpena, ibiltzeko modua, irribarre okertua ikusi bezain laster, lan egiteko gogo zentzugabeak erakusten zitutela jabetu nintzen, bere herritik nire baserri xumera iristeko behar zituen lau ordu luzeak kontuan hartuta.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

—Zopa hoztu egingo zaizu, jan ezazu, nik lagunduko dizut —ahots ia entzunezin horrek jatetxe ikaragarriara eta armiarma-lanpara itzularazten nau.

Buruak makurtuta mantentzen dudak bitartean, eskua hurbildu, koilara hartu eta plater distiratsuan sartzen du. Nahasmenduak hartzen nau, bere esku latzetan beti ageri diren kailu handi horietako bat ere ez baitut ikusten, lan-bizitza luze baten mapa salatzen dituzten kailuak. Begirada altxatzera noanean, nire zentzumenek traizionatzen naute, eta haur txikiaren barrearekin batera, nire pentsamenduak berriro hedatzen dira.

Inolako damurik edo zalantzarik gabe haren barrea munduko soinu ederrena dela esango nuke. Lehenengo astea amaitu aitzin lagun minak bilakatu ginen, eta umeak ginenez, eguna mitxoleta zelai erraldoian ezkutaketan jolasten igarotzen genuen. Nire soineko zuria joko bakoitzaren ondoren berde eta marroiaren arteko nahasketa bihurtzen zen. Amak egunero errieta egin arren, ez nion inoiz jolasteari utzi. Nire barre-argarak eten egiten ziren nire eskuei esker harkaitz handi baten gibelean ezkututzen nintzenean, harrapatua ez izaten saiitzen nintzen bitartean. Bere jokamoldea nahiko bitxia zen, nire ezkutalekua aurkitzen zuenean izutu egiten ninduelako, eta ni, tolesgabea bainintzen, beti oihu egiten nuen. Alabaina, modu horretan ez zitzaidala jolastea gustatzen ez nion inoiz esan, besterik gabe ikaraz oihu egiten nuenean bere ezpaintedatik ateratzen zen barre ikaragarriagatik. Azkenean, barre egiteko, irribarre egiteko eta bizitza bizitzeko modu horrek maitemindu ninduen. Baina agian, eta bakarrik agian, tirante zantar horiek lortu zuten.

Batzuetan, eta berriz ere ezkutuan, afaldu aurretik kanpandorrera igotzen ginen izarren berpiztea ikustera. Ahoz gora eta musu artean, gas-esfera handi horietako batzuek elkartzen zirenean izen bereziak zituzten formak sortzen zituztela azaltzen zidan. Bai nire ezjakintasunagatik, bai irudimen faltagatik, bai 6 izar horiek osatzen zuten gurditxoa adierazteko gogo biziz, ez nituen inoiz besteengandik bereizi. Eskolan biderkatzen nekez irakatsi zidaten, eta zeruan ikusten ditugun izarretako askok agian milaka urte daramatzatela hilda azaldu zidanean, ez nuen erabat ulertu zertaz ari zen.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

Dena den, azkenean ulertu nuen. Izan ere, izarrak, pertsonok bezala, hiltzen badira ere, haien argiak bizirauten jarraitzen du.

Gereziak ez zitzaizkidan inoiz gustatu, nahiz eta gereziondoa bezain zuhaitz bikainaren fruitua izan, fruitu nahiko estranbotikoa iruditzen zitzaidan. Haatik, amak gure abentura ñimiñoaren berri izan eta mutila etxetik bota zuenetik, nire pertzepzioa aldatu zen. Denbora edota distantzia zerbait irreal zela esaten zidan, izarren distiraren antzera. Izar horiek oso urrun egon arren, gauero gure mundua argitzen jarraitzeko modua aurkitzen zutela, eta berak ere, haiek bezala, nire zerua argitzen jarraitu nahi zuela. Horregatik, nire baserrira iristeko 4 ordu igarotzen zituen, mendi gainean txistu egiten zuen eta iristen nintzenean 10 minutu baino ez genituen ematen elkarrekin. Bera, ni eta ibilaldian zehar bildutako gereziz betetako saski ñimiñoa. Egunero 10 minutu eskas horiek nahikoa izan ziren amak idazten ari ginen istorioa ezin hausteko. Eta, ezkutaketan jolasten ez ginen arren, txikitan bezala mundu osotik ezkututzen ginen.

Dirudienez, begi berdeko mutil gazte hura niretzat traba bat besterik ez zela zioen amak, nik gehiago merezi nuela oihukatzen zidan soineko zurian orban berde edo marroiez gain, nire desobedientziaren frogaz ziren orban arrosak aurkitzen zituenean. Berrito ere, nire obedientziarik eta menpekotasunik eza argi utzita, amaren errietei kasurik ez egitea erabaki nuen, eta ezkutuan gure istorioa idazten jarraitu genuen.

—Gerezirik ba ote dagoen galdetu beharko genuke. Gogoratzen al zara ekartzen zenizkidanean? —galdetzen diot.

Lehen aldiz burua altxatzen dut, begi urdineko begirada triste eta malenkoniatsu batekin topatzen naiz, nirea bezalakoa. Samurtasunez nire eskua hartzen du, ukimena leuna da, ez latza. Berak sekula jantziko ez lukeen gorbata marradun horretan arreta jartzen dut.

—Ama, Manu naiz, zure semea.

Begirada aldentzen dut eta nire begiek eskuineko ispilu erraldoi batekin topo egiten dute. Han, emakume zahar baten isla ageri da, ile grisaxkarekin, esku zimurtuekin eta jarrera hondoratuarekin. Nire isla izan behar du, nire begi urdin berberak dituelako.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

Oraingoan, ordea, haiengan hutsune suntsizailea aurkitzen dut.

—Aita ez dago gurekin jada.

Une batez baizik ez dut neure burua ezagutzen. Hamar taupadatan, hutsune suntsizaitetik, zuhurtzia ezkututzen den itxurazko ezerezetik itzuli zen. Itzul zaitez nahi gabe bizi nahi ez dudan errealitate bat erakustera. Hala ere, zugatik bakarrik saiatzen naiz:

—Markos, seme, hau hain da gogorra... urtzen den lekua...

Dardaraka. Zain zaude oraindik. Baina ezin dizut gehiago esan. Nola azaldu dezaket inguratzen nauen lainoak babestu egiten nauela, eta bertan ez dudala sentitzen ez bizitzaren presentzia, ez heriotzaren itxura.

Negar egiten duzu. Zain zaude oraindik. Nola azaldu, seme, Alzheimerra nire etsaia baino nire babeslekua dela, nire iragana izoztu eta nire oraina urtzen den lekua...

Ezin naiz zurekin egon...

Bera ere nire zain dagoen lekuan.